

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2011ko urtarrilaren 6a. VIII. urtea. 2.153. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)



Hiru Erregeak, urtero bezala, Tolosako lurreamendi egoitzara joan ziren arratsaldean. Iluntzean berriz, Tolosako kaleetan ibili ziren. I.TERRADILLOS

## Hauek ere opariekin iritsi dira

Goiz txukunaren ondotik arratsalde nahiko petrala izan zen atzokoan, baina Hiru Erregeak, hala ere, opariak banatzera joan ziren Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietara

Herri gehienetan baserriz baserri ibili ziren Errege Magoak eta Tolosan lurreamendira joan eta gero Izaskundik jaitsi ziren herrira Trianguloa plazan atsedenaldea hartzeko **6-7**

### Olaizola I-Beloki eta Berasaluze VII- Apraizek aukeratu dituzte pilotak

Partida bihar izango da Tolosako Beotibar frontoian; Promozio Binakako BBK Txapelketako partida izango da lehenengo **5**

### Saralegi leitzarra eta Arrospide leaburuarra lehian

Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako jardunaldia izango da igandean; Arrospidek Mugerza du bikote eta Saralegik Olasagasti **2**

### Gaztelu bideko pabilioiaren inguruan hiru txakur hil dira pozoindua

Ingurune horretan txakurrak lotuta ibiltzea gomendatzen da, baita ahoan zer sartzen duten kontrolatzea ere **3**

**Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bila!**

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**

**pintura eta papereztatzeak**

Jose Luis Martin

p.k. 20400-ibarra

tel.: **647 023 694**

## Saralegi eta Arrospide aurrez aurre igandean

Binakako Aizkora Txapelketa izango da jokoan Deban; batek Olasagasti du bikote, besteak Mugertza II.a

**Erredakzioa** Aizkora

Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako beste jardunaldi bat jokatu da asteburu honetan. Urteko lehendabizikoa izango da Gipuzkoako kostaldean egingo dena. Urrezko mailan da hau. Hau, Deban izango da hilaren 9an. 12:00etan hasiko da jaialdia.

Urrezko mailan, laugarren jardunaldia izango da igandekoa. A taldeko aizkolaria ariko dira nor baino nor lanean. Bikote partehartzaileetako bat, egungo Eus-

kal Herriko txapelketa den Jose Mari Olasagasti eta Ruben Saralegi leitzarrak osatuko dute. Hauek aurkari bi gipuzkoar izango dituzte, Anjel Arrospide leaburra eta Ugaitz Mugerza Olatz-Mutrikukoa. 28 mozketa egin beharko dituzte aizkolariek, sei era ezberdinetan.

Bestetik, jaialdi horretan bertan, harri-jasotzaileen saioa eta txinga eroatea ere izango dira.

Joseba Ostolazak erakustaldia egingo du harri ezberdinekin. Berarekin batera, baina hau txingak eroaten, Juan Jose Agirregabiria debarra ariko da. Egungo Euskal Herriko txapelketa orain arteko marka handiena hobetzen saiatuko da. Markarik onena Santxo bizkaitarrak jarri zuen bere garaian, 50 kiloko pisua zuten txingekin 1008 metro zeharkatu baitzituen.

## Shanti Torneoko finalak jokoan izango dira 09:30etik aurrera Usabalen

**Erredakzioa** Tolosa

Gabonetako Shanti Torneoko finalak izango dira gaur jokoan Usabal kiroldegian. 09:30ean hasiko da lehendabizikoa eta hortik aurrera, goiz guztian zehar futbol partidak ikusteko aukera izango da.

Lehendabiziko benjaminen mailakoak hasiko dira. Batetik, neskek, eta bestetik, mutilak (2002 urtean jaioak). Ondoren, 11:00ak aldera, alebina txanda izango da. Neskek ariko dira baloiari ostikoka. Gero, benjamin mutilak berriro, baina oraingoan, 2001ean, jaiotakoak. Azkenik, 12:30 inguruan hasiko da azken finala, alebin mutilena.

## Zortzigarren doaz Martinez eta Fernandez



Mapfre ontzia Mediterraneoan zeharkatzen. HITZA

Atzo zeharkatu zuten Gibraltargo itsasarte eta orain Atlantikoan dira; Virbac-Paprec 3 doa sailkapeneko buru

**Erredakzioa** Ibarra

Barcelona World Race txapelketa aurrera doa, eta zortzigarren doaz Iker Martinez eta Xabi Fernandez. Abenduaren 31n ateraziren Bartzelonako portutik eta atzo Gibraltargo itsasertzerira iritsi ziren, Mediterraneo itsasoa atzean utzita.

Martinez eta Fernandez Mapfre ontzia Atlantikoan dabil jada. Lau egun eta hamar ordu behar izan dituzte Mediterraneoan igarotzeko. Zeharkaldia gogorra izan da bi euskaldunentzat. Orain, Atlantikorako prestaketak egin dituzte eta gauzak hobetu zaizkie. Atzo, Mendebalde-rantz abiatu ziren, ozeanoaren iparraldean eta erdialdean eraginan duen borrasa harrapatzeko. Atzo 10 korapilo baino handiago-ko abiadura zeraman ontziak. Aurreko milietan eramandako

### ↓ Sailkapena

#### Barcelona World Race Urtarrilak 5, 10:00

1. Virbac-Paprec 3	23.811 milietara
2. Foncia	+58 milia
3. Mirabaud	+104 milia
4. Estrella Damm Sailing Team	+132 milia
5. Neutrogena	+185 milia
6. Gaes	+192 milia
7. President	+194 milia
8. Mapfre	+196 milia
9. Grupo Bel	+206 milia

batatz bestekoa baino azkarrago. Aurreikuspenen arabera, gaur, borroka handia izango da hiru ontzien artean. Lau milien buruan baitoaz, Mapfre, President eta Gaes Centros Auditivos. Gainera, nabarmentzekoa da, azken hau dela nabigatzaile neskek daromatzen bakarra.

Virbac Paprec 3 ontzia doa lehen postuan oraingoan. Hau izan zen aurreko aldiaren txapelketa. Atzetik du Foncia 58 miliako diferentzia. Aipatu bezala, zortzigarren doaz eskualdekota eta bere bikotea. Aurretik dituzte, faborito diren, Jean Le Cam eta Bruno Garcia.

## Irudia Albiztur



## AURPEGI BERRIEKIN DATOR OSTATUA

Atzo zabaldu zituen berriro ateak Albizturko Herri Ostatuak. Udalak joan den hilean enkantera atara zuen eta Aimar Martinez eta Tamara Larreak irabazi zuten lehiaketa. 11:00etan herritarrei aurkezpena egiteko luntxa eskaini zuten. Hemendik

aurrera normaltasunez funtzionatuko du tabernak nahiz jatetxeak. Datozen lau urteetan bigazteak arduratuko dira kudeaketaz eta orain arteko jarduerari, dendarera ere gehituko diote. Oinarriko produktuak salduz. E. EZEIZA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**EZAGUTU  
WEBGUNE BERRIAK**

**www.TOLOSALDEA.hitza.info**

**www.IBARRALDEA.hitza.info**

**www.ALEGIALDEA.hitza.info**

**www.LEITZALDEA.hitza.info**

**www.TOLOSA.hitza.info**

**www.ANOETALDEA.hitza.info**

**www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info**



Zeberio II.ak gaur jokatuko du. HITZA

## Gaurtik aurrera pilota modalitate ezberdinak nagusituko dira

Eskualdeko pilotariak, profesionalak eta amateurrak, partida ugari jokatuko dituzte, baita gurean ere

A. Imaz Pilota

Zeberio II.ak gaur partida jokatu-ko du Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Etxeberria III. arekin osatuko du bikotea elduaindarrak eta aurkari bezala Juaristi-Urrutia I.a edukiko ditu. Jaialdia 16:00etan hasiko da eta Patxi Zeberioaren partida bigarrena izango da. Guztira lau partida jokatu-ko dira Galarretan.

### Euskadiko Txapelketa

Aurrera Saiazeko pilotariak Euskadiko Txapelketako partidak jokatu-ko dituzte larunbatean, hilaren 8an. Tolosako Beotibar pilotalekuan 10:30ean hasiko da pilota jaialdia eta Aurrera Saiazeko partaideak bertan egongo dira.

### Trinketea, Joko Garbi...

Gabonetako atsedendialdiaren ondoren, asteburu honetan berriro ekingo diote Trinketeko Gipuzkoako Elkarteen Arteko Txapelketari; gainera, jardunaldi honetan gomazko paletako lehia ere gehituko zaie.

Bestetik, bi txapelketa berri ere hasiko dira: Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketa (infantil, jubenil eta nagusien mailan) eta Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa eskuz binaka (2. urteko alebinak eta infantilak; eskuz banakakoari lekuko hartuko diotena).

Euskal Herri osoan jokatu-ko dituzte partidak. Eskualdean ere lehia ugari izango dira. Villabonan hilaren 7an, 19:00etan; Zizurkilan egun berean, baina 20:00etan; Iruako trinketean hilaren 7an, 20:15ean, hilaren 8an 09:15ean eta 15:00etan eta hilaren 9an 09:15ean; Bidegoianen hilaren 8an, 16:00etan eta Ikaztegietan egun eta ordu berean.



Gaztelu inguruetan hiru txakur hil ziren iragan astean, pozoinduta. A. IMAZ

# Gaztelu bidean dagoen pabiloi inguruan txakurrekin kontuz ibili beharra dago

Iragan astean hiru txakur hil ziren pozoinduta; jabeetariko batzuk salaketa jarri dute

Asier Imaz Gaztelu

Iragan astean hiru txakur hil ziren Gaztelu inguruan pozoinduta. Aurrez, Baliarrainen sei hil ziren eta Berastegin «urtero» gertatzen omen dira intoxikazio kasuak.

Gazteluko kasuan, pozoia jan eta 15 minuturen bueltan txakurra hilik aurkitzen zen. Konbulsioak, ahotik aparra eta heriotza. Albaitariarengana joateko denborarik gabe hil ziren txakurrak.

Ertzaintzan salaketa jarri duenik ere bada, baina «oso zaila» da gertaeren nondik norakoak argitzea.

### Zalantza kasuetan, gatza

Gaztelun aurrez intoxikazio gehiago egon dira, baina iragan astekoak bortitza izan zen, bai behintzat pozoiairen azkartasuna kontuan hartzen baldin bada.

Tolosako Ibaiondo albaitari klinikan galdetuta, zer jan duten aurkitzea zaila dela onartu dute: «Txakur bat intoxikazio sintomekin ekartzen dutenean ere, ezin da ehuneko ehunean ziurtatu zer hartu duen. Alde batetik, ez dago

elako odol analisirik hori ziurtatu dizunik eta ez dakigulako zer produktu jan duen. Hala eta guztiz ere, aurrekariak ikusita, intoxikazioa izan dela pentsatzen dugu». Lagin bat hartu eta laborategira eramateak ere ez omen du ezer ziurtatzen: «Pozoi mota asko daude eta laborategira eramatean, zein toxiko aztertzea nahi duzun esan behar diozu. Eurek bai ala ez erantzuten dizute, hori den ala ez; eta pentsa, milaka toxiko mota daude».

Etxean txakurra duenak eta antzeko kasuren batean suerta-

### Zalantza direnean txakurrari gatza eman behar zaio, botaka egin dezan

tzen denak, lehenik eta behin txakurrari botaka egitea probokatu behar dio. Horretarako, «modurik errazena, etxean izaten dugulako, gatzaren bidez egitea da».

Txakurrari gatza ematean, honek botaka egiten du eta horrela jan duena kanpora ateratzen da. Ondorengo urratsa, albaitariarengana ematea izango litzateke:

### Eremu hauetan txakurrak lotuta ematea gomendagarria da

«Ez badu botaka egiten, sabela garbitzen diogu. Horretarako karbono aktiboa sartzen diogu. Honek, pozoia pixka bat neutralizatzen egiten du eta odolera pasatzea ekiditen du neurri batean».

Hala eta guztiz ere, Gazteluko bidean dagoen pabiloiaren inguruan, hiru kasuak gertatu diren eremuan, kontu handiz ibiltzea gomendatzen dute albaitari klinikatik: «Mendian txakurra lotuta eramatea zaila den arren, kasu hauetan gomendagarria litzateke. Ahoan zer sartzen duen kontrolatzea ere bai».

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450a salgai. 2006. urtekoa eta egore-oro olean. Interesatuak deitu 635 75 09 15 telefono zenbakira.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa. Bi kanoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Deitu 635 75 09 15era.

## Haitzetan Rajuko mendi taldekoak argazki bilduma egiten ari dira

Urtarrilaren 22 eta 23an Ibaratik Zuberoara joango dira; izena emateko arduradunekin hitz egin behar da

Asier Imaz Ibarra

Haitzetan Raju mendi taldeko kideek deialdi bat egin die Zarautik Debara egindako irteeran parte hartu zuten mendizaleei. Urtero bezala argazki bilduma egiten ari omen dira eta irteera horretako argazkiak falta omen zaizkie. Norbaitek zerbaite jakin ezker, mendi taldeko kideekin harremanetan jartzeko eskatu dute.

### Euskal Herrian barrena

Bestalde, azken hilabeteko galdialdiaren ondoren, Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju hurrengo irteera antolatzen ari direla azaldu dute. Oraingo irteera ikasturteko laugarrena izango da eta Zuberoara joango dira. Bi eguneko irteera izango da, hilaren 22-23an, eta izena emateko antolatzaleekin hitz egin behar da.



# 2011 agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- [www.euskalherrikoaplaza.com](http://www.euskalherrikoaplaza.com)

### Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

# Sarasola anai-arrebak irabazle Frontenis Txapelketa Mistoan

Lehenengo txapelketa mistoa izan da eta 30-15 irabazi zituen Beñat Sainz eta Nerea Lasak osatutako bikoteari

I. Garcia Iruia

Gaztelekuak eta Gazte Asanbladak antolatuta, Iruan ikasleengo Frontenis Txapelketa Mistoa antolatuta dute. Finala atzo jokatu zen eta Nerea eta Unai Sarasola anai-arrebak izan dira txapelketa- irabazleak. 30-15 irabazi zituen Beñat Sainz eta Nerea Lasak.

Gazteira hamalau bikote aurkeztu ziren txapelketan parte hartzeko. Bikote bakotza neska batez eta mutil batez osatuta egon behar zuten. Kanporaketak eta finalerdia 15 tanatarak jokatu zituzten herenegun.



Atzo jokatuak finalaren une bat. HITZA

Irudia Tolosa



## ESKINTZETATIK BEHERAPENETARA

Urte berria hastearekin batera, beherapenen garaia ere iristen da. Gurean bihar hasiko da urtarriko merkataldia. Hurren aurretik, baina, zenbait

dendek Gabonetako eskaintzak egin dituzte. Urteko erosketak nagusienak egin ohi diren garai hauetan %20 jaitzi dira prezioak eskaintzetan.



Kirol eta kultur etxearen aurrealdean daude haurreskola eta gimnasioa. I. Iruia

# Haurreskola eta gimnasio berriak ezagutzeko aukera

Kirol eta kultur etxean daude bi azpiegiturak eta etzi egongo dituzte ate irekien jardunaldia 11:00etatik 13:00etara

I. Garcia Iruia

Alegiako Udaibak haurreskola eta gimnasioa ezagutzeko aukera zabalduko die herritarrei etzi. Ate irekien jardunaldia egongo dute 11:00etatik 13:00etara eta bertan izango dira udal ordezkariak. Bi azpiegiturak Inaxio Begiristain kirol eta kultur etxean daude.

Orain gutxi bukatu dira obrak eta bai kirolgia eta bai haurreskola dagoeneko martxan daude. Gimnasioa izan zen aurrena martxan jarria. Azaroaren hasiera aldera egin zuten lekualdatzea. Lehen ere kirol etxean bertan zegoen gimnasioa, baina kirol etxean hantlatzen ondoko espazioa aldatu zuten.

Haurreskola astelehen honetan jarri da martxan. Lehen gimnasioa zegoen lekua hartzen du. Eguberrietako oporrak erabili dituzte lekualdatzea egiteko. Aurretik Kalebeherako planan behin-behineko erabiketan zegoen haurreskola.



Gimnasio berriari beiraite handia nabarmentzen da. I. Iruia

# Emakunde Saria Teresa del Valle antropologiari emango diote

Asteasun bizi da 2010. urteko Berdintasunerako Emakunde Sariakuna

Erredakzioa Astasu

2010eko Berdintasunerako Emakunde Saria Teresa del Valle ikeritzaile eta Gizarte Antropologiaren katedraturaren izenean emango diote Beotibar pilotalekuan. Lehen Mailako Binarako Txapelketa izango da. Partida hori jokatu ahal izateko, atzo goizean lau pilotariak Beotibar pilotalekuan elkartu ziren pilotak aukeratzeko.

Binarako Txapelketako final laurdenetako ligaren bigarren jardunaldiko partida izango da. Olatzola La5 eta Belokik, 104.4, 105.1 eta 105.7 gramoko pilotak aukeratu zituzten. Eta Berasaluza VII.ak eta Aprainek berriak 106,

# Bihar Beotibarren jokatuko duten partidarako pilotak aukeratu dituzte

Bihar arratsaldean jokatuko duten partidarako pilotak Beotibar pilotalekuan aukeratu zituzten

Erredakzioa Tolosa



Lau pilotariak aukeratuak pilotekin Beotibarren. I. Iruia

106 eta 105,3 gramokoak bereiztu zituzten. Bi bikoteek lehen partida galduta egon zuten. Beotibarren 18:30ean hasita, lehen partida Promozio Binarako BSB Txapelketako finalaurrene-

takoa izango da. Olatzola-Albisu bikotea, Lemano-Olatzola bikotearen aurka arituko da. Haren ostean, lehen mailako partida izango da. Pilotaz gozatu nahi duenak ahera izango da.

106 eta 105,3 gramokoak bereiztu zituzten. Bi bikoteek lehen partida galduta egon zuten. Beotibarren 18:30ean hasita, lehen partida Promozio Binarako BSB Txapelketako finalaurrene-

# Laburrak

'Caza a la Espia' eta 'Aprendiz de Brujo' Gurean

VILLABONA | Asteburu honetan, Gurea Zinemari bi film ikusteko aukera izango da. Larunbatean, 19:30ean eta 22:15ean, Caza a la Espia filma eskainiko dute. Igandean, 16:30ean hasita, Aprendiz de Brujo ikusteko aukera egongo da eta 19:30ean berri. Caza a la Espia filma izango da. Astelehenean, 21:30ean Caza a la Espia filma eskainiko dute.

Dantza-Soka Egunerako izena ematea zabalik

ANOTEA | Dantza-Soka Eguna otsailaren 26an izango da. Bertan, Oñoko Bigarren mailako aurrerako gazte eta heldak izan daitezke parteidea. Izena ematea, Itzuli tabernan egin behar da eta horretarako izena eguna urtarrilaren 21 izango da.

Haurreskola izena emateko epea zabalik

ANOTEA | Altzoko haurreskolak matrikulatzeko epea zabalduko du. Hilaren 17an irekiko da izena emateko epea eta 28a izango da azken eguna. Informazio gehiago eskuratzeko edota matrikulazio orria eskuratzeko, Altzoko haurreskolaren gerturatu behar da.

Merkatu Txikiako azken egunetan beherapenak

TOLOSA | Laskorain ikastolak antolatzen duen Merkatu Txikiaren 8. eta 9. izango dituzte azken egunak. Azken egunak direnez beherapenak egongo dira jakinarazi dute antolatzaileek. Arropa, onestakak eta liburuak euro batean eta beste jantziak 4 eurotan. Bestetik, Angel Cuervo Arburu Jauregiaren duen Marduri bete kolore erakustetan ere beherapenak egongo dira. 50 eurotan egon diren irudiak, 30 eurotan eskura daitezke. Ordainketa Merkatu Txikiaren egun behar da.

Irudia Larraul



# TXITA TXIKIAREN IPUINA

Eguberri egun hauetan etxeko txikiak izan ohi dira protagonista. Eskolako oporren eta Olatzoko zein Hiru Errege Magoek ekarritako opariez gain, Gabonetako etxetako artean, atzo, ipuin kontalaria izan zuten Larraul. Haurrak eta hauen gurasoak kultur etxean elkartu ziren Saria Bikandi ipuin kontalaria kontatutako ipuina adierazi zuten. Txita Txikiaren istorioa kontatu zuen herriko txikiak. Arratsaldean guztiak Asteasura jaitzi ziren Errege Magoekin egoteko. I. Iruia

**BERRIA taldeak zure laguntza behar du**

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interresen eta paperaren, gure komunikazio proiektuak bertan eta indaritu ditugu udazkenean. Ajuste hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure arrakoa.

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berriketan.info

www.euskaraherria.com

www.euskaraherria.com

iragarkilaburrak.com

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

Ekarpena egiteko bideak 50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

- Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean

berria taldea



# Opariz beterik iritsi dira

Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoak Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietatik igaro dira, eta opariak banatu dituzte

Gaur goizean Zizurkilen izango dira, mezan lehendabizi, eta Fraisoron ondoren

## Erredakzioa Gizartea

Loak hartzea kostako zitzaion bart ume bati baino gehiagori. Errege magoak etxeetatik igarotzekoak ziren, eta horrek sortzen duen zirrara izan da horren erruduna. Ilusioz beterik ohera sartu, eta ilusio berberarekin esnatu. Eta korrika ilusio hori egi bilakatu den ikustera. Hau da, norbere oinetakoaren aldamenean eskatu, desio edo esperotako erregalia dagoen ikustera. Baina, hori horrela izateko, baldintza bat behintzat bete behar izan ohi da, ondo portatzea, alegia.

Eskualdeko etxeetan sartu-irtena egin aurretik, baina, Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoak herriko kaleetatik ibili

ziren atzo arratsaldean, euren laguntzaileak aldean zituztela. Zaldiz, gurdian edo oinez igaro zituzten kaleak. Txikienek eurengana gerturatzeko aukera izan zuten, eta musuak jasotzeaz gain, gutunak eman zizkieten.

## Eskualdea zeharkatu dute

Goiztiarren Orexan ibili ziren. Han etxez etxe gurutzatu zuten herria, eta gaztetxoenei gozokiak eta opariak banatu zizkieten. Tolosako Iurreamendi adinekoen egoitzan ere ilundu aurretik izan ziren, bertan dauden egoiliarrei ilusioa banatuz.

Orexan egin bezala, Areson ere etxez etxe igaro ziren hiru errege magoak. Herriko txikienek zain zituzten ordurako, eskuak zaba-

lik. Eta herri osoa gurutzatu ondoren, Amezketara abiatu ziren, eta handik Leitzara, Berastegira, Tolosara, Alegiara, Anoetara, Bidegoianera, Irurara, Lizartzara, Villabonara, Asteasura, Larraulera, Berrobira eta gainerako herrietara.

## Opariez gozatzera

Ederki gozatu zuten, bada, atzokoan txikienek errege magoak ikusiz. Eta gozatua are handiagoa izango da gaurkoan. Jasotako opariak ireki eta horiekin jolastuz. Hori izango baita gaurko irudirik nabarmenena, gaztetxoak jaso berri dituzten opariak estreinatuz, kalean ederki pasatzen ikustea.

Beste irudia Zizurkilen topatu ahal da, izan ere, atzo denborarik ez eta gaur igaroko dira bertatik errege magoak. 11:00etako mezan izango dira, eta hau bukatzean, zimiterioan opariak banatuko dizkiete txikienei. Ondoren, Fraisorora joango dira, eta han ere opariak banatuko dituzte. Kasu honetan, bertako egoiliarrei.



Gurdi gainean zeharkatu zuten herria Orexan. IT.

Eguberri  
hauetan  
oparitu  
**HITZA**ko  
harpidetza!



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info

bertako egunkaria  
egin harpidetza:

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-1

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa



Elizaren aurrealdean errege magoei abestu zieten Amezketako gaztetxoek. Bertatik frontoirako bidea egin zuten zaldiz. I.GARCIA



Gettoki aldetik, pajeeekin eta atzetik opariz betetako karroa zutela etorri ziren erregeak. E.MAIZ



Berastegin, opari bana eman zien bertako haurrei eta gozokiak banatu zituzten. E.EZEIZA





## Hilberriak

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA**n jarrita  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA** Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

 <p><b>HILETAREN BALIOA</b> Txina Inperiala</p>	<p>Funeraria Vascongada en e pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neuriko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horietan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzten diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.</p> <p>Bereskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.</p>	 <p><b>FUNERARIA VASCONGADA</b> EHORZKETAK</p> <p><b>902 402 900</b></p> <p><a href="http://www.funerariavascongada.com">www.funerariavascongada.com</a></p>
---	---	---



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	10°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_publici@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agurrak



### Urte askoan!

**Nahia Lopetegi Etxedona (Tolosa).**

Gaur urtebete. Zorionak eta muxu asko etxekoan eta Oihanen partez.



### Zorionak!

Aitonak gaur 76 urte eta loritzek etzi, 14. Jarraitu horrela gure ospakizunak alaitzen.

## Agenda

### AZOKA

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolak antolatuta, Ekuador eta Sahararen aldeko Merkatu Txikia, kultur etxean. Urtarrilaren 9ra arte egongo da zabalik.

### ZINEMA

■ **Tolosa.** 19:30ean *Heroes* filma ikusi ahal izango da Leidorren. Bihar berriz, zine foruma izango da. *Nothing Personal* filma eskainiko dute jatorrizko bertsoan 19:15ean eta 21:45ean. Larunbatean *Marmaduke* (17:00), *Neds* (19:30) eta *The Way* (22:00) ikusi ahal izango da. Igandean *Mystik* (17:00), *The Way* (19:30) eta *Neds* (22:00) eskainiko dituzte.

### ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Puri Etxaburuaren *Bizia* erakusketa, *reborn* panpinekin osatua, Aranburu jauregian.  
■ **Tolosa.** Angel Cuerdoren *Mundu bete kolore* erakusketa, Aranburu jauregian. Angel Cuerdok azken 10 urteetako bidaetan jasotako argazkien bilduma. Argazkiak salgai daude, 50 euroan, eta jasotako dirua Sahararen aldeko proiektuetara bideratuko da.  
■ **Tolosa.** Napoleoni buruzko erakusketa Aranburu ikusgai. Eusko Ikaskuntzaren bidez antolatutako erakusketa da eta larunbata da hau ikusteko azken eguna. Larunbatean, gainera, bisita antzeztua ere egingo dute 17:30etik aurrera. Doan izango da eta Aranburu jauregian hasi eta bukatuko da ibilbidea.  
■ **Tolosa.** Wayang Golek Indonesiako txotxongiloak daude ikusgai Topic Txotxongiloen Nazioarteko zentroan hilaren 10a bitarte.

■ **Tolosa.** Artearen merkatua, Gko Galerian.

### KIROLA

■ **Tolosa.** Shanti Torneoaren finalak Usabal kiroldegiko goiko kantxan. 09:30ean benjamin neskak izango dira, 10:15ean benjamin mutilak, 11:00etan alebin neskak, 11:45ean benjamin mutilak eta 12:30ean alebin mutilak.

### EGUBERRIAK

■ **Zizurkil.** Errege Magoak Zizurkilgo mezara joango dira 11:00etan. Ondoren, eliza atarian opariak banatuko dituzte eta ondoren, 12:30ak aldera, Fraisorora joango dira.

### MUSIKA

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandak urteroko Errege Eguneko kontzertua eskainiko du Tolosako Musika Eskolaren areto nagusian eguerdiko 12:30ean. Lehen zatian Tolosako Txistulari Banda ariko da eta ondoren Tolosako Musika Bandak Strauss- en vals eta polka ezagunak eskainiko ditu.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Iruztun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

# agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

# agurrak



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du

**LAGUN ARO GBC**  
Caja Laboral Baskonia  
saskibalo partida

Urtarrilak 9 • Igandea  
12:30ean  
Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu goizez **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak

